

Hurbileko harremana izango dugu gure bezeroak direnekin. Izan ere, harremana erabat zuzenekoa eta aurrez aurrekoa izango da. Gure ustez, aurrez aurreko harremana askoz ere aberasgarriagoa da, eta sarritan lagungarriena den metodoa.


Hala eta guztiz ere, online bidez harremana ere izango dugu. WhatsApp bidez zein bestelako sare sozialen bidez, helbide elektroniko bidez, telefono bidez, eta bai Hontza Guraso Elkarteko Web orrialdearen bidez. Azken honetan, elkarteari buruzko informazio orokorra egongo da: eginiko zein egingo diren hitzaldiak, jarduerak, ekitaldiak, etab.

Halaber, helburua familiek dituzten kezak, ezjakintasunak eta zalantzak argitzea da; betiere, familiek duten eskarmentua aintzat hartuta. Horrez gain, helburutzat ere, badugu guraso elkarteko kideek dakitena ondokoei plazaratzea, eta batez ere, ideiak argi azaltzea eta denon artean elkarbanatzea.

Horri lotuta, laguntza pertsonala eskeiniko diegu, non, haien esperientziak entzungo ditugun, entzute aktiboa atxikitu dugun, zein, ahal dugun neurrian gure iritziz aholkurik egokienak emango ditugun. Hau da, talde terapia baten moduan arituko gara, horretarako, erabiltzaileekin astean behin batuko gara.

Hain zuzen ere, negozio-ereduan integratze aldera, youtube kanala sortuz gero, eta astean birritan bideo bat igoz gero horrek gure elkartea ezagutarazten lagunduko digu. Igotako bideoak erakargarriak izan beharko dira. Esate baterako, hitzaldiak izaten direnean hizlaria grabatu (haren baimenarekin betiere) eta ahala hitzaldira joan ezin direnek ikus dezaten, baita, erakartzeko ere elkarkez ez dakien edonork.

Bezeroekin harremana mantentzeko helduak hilabetean behin haurrekin joan ahal izateko aukera izango dute bestelako ekintzaren bat egitera. Adibide modura, nutrizio hitzaldia denean, gurasoak hitzaldia entzun bitartean haurrak beste hizlari batekin sukaldatze tailerra egiten egongo dira. Horrek lagunduko du gurasoak neurri batean lasaiago egoten hitzaldia entzun bitartean.



Kasu honetan, grafikoan ageri da, pertsonen % kantitate batek nahiago duela arreta zuzena online bidezkoa baino.

Baina, hala eta guztiz ere, elkarte askotariko erabiltzaileak eskertzen dute online bidezkoa izatea, hain zuzen, pertsona guztiek ezin baitute beti aurrez aurre egon.

Honekin, indartzen dugu, hasiera batean esan dugun metodoa, aurrez aurrekoa abersagarriagoa eta eraginkorragoa dela. Bai eta, erabiltzaile gehiagok nahiago dutela ere.

Zehazki, argi eta garbi dago bezeroei aukera emango diegula haien proposamenak adierazteko. Aurrez aurre daudenean aukera izango dute, bai eta, sare sozialen bidez, hau da, facebook, e-mail, instagram, twitter, etab. Guk geuk inkesta batzuk ere egingo ditugu noizean behin sare sozialetik edo helbide elektronikotik beraien iritzia zein den jakiteko.

Azkenik, familia egun bat ezarriko dugu hilean behin beraien kezka, arazoak, izan ditzaketen beldurrak, gatazkak, etab... partekatzeko. Egun horretan ere, edonork hurbiltzeko aukera izango du: elkarteko kideak, partikularrak, hots, norbanako oro.